

## **2009KO ABENDUAREN 18TIK 20RA BERGARAN EGINGO DEN 3.ARTISAU AZOKA ARAUTUKO DUEN BALDINTZEN PLEGUA**

### **1.Deialdiaren xedea:**

2009ko abenduaren 18tik 20ra bitartean Bergarako Munibe plazan jarriko den artisau azoka arautzea eta artisau azokan izango diren artisau postuak esleitzeko irizpideak jartzea da deialdi honen xedea.

Azoka honen helburuak dira gabon inguruan Bergarako udalerrria girotzen laguntzea eta artisauei azoka honetan parte hartzeko aukera ematea.

2009ko abenduaren 18an 18:00etan irekiko da azoka, eta ondorengo ordutegia izango du:

Abenduaren 18an: 18:00 – 21:00.

Abenduaren 19 eta 20an: 10:30 – 14:00 eta 17:00 – 20:00.

### **2. Eskaerak.**

Eskatzaileak baldintzen plegu honi erantsitako eskaera orrian egin beharko du eskaera derrigorrez.

Eskaerak aurkezteko epea **2009ko irailaren 4an** 13:30ean bukatuko da. Horretarako eskaria, baldintzen plegu honi erantsitako ereduarekin aurkeztu beharko du Bergarako Udal Erregistroan (San Martin de Agirre plaza, 1, 20570 Bergara).

Azokan parte hartzeko eskaerak aurkez ditzakete Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Zuberoa, Lapurdi edo Behe-Nafarroako artisauek, eta derrigorrezkoa izango da probintzia horietakoren bateko eskulangintza tradizional eta herrikoia Errolda Orokorrean inskribatua egotea, horrela ez balitz baztertuak izango direlarik.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, eta bertan baldintza-orriak jasotzen dituen betebeharrak guztiak ezagutu eta betetzeko prest dagoela azaldu beharko du artisauek.

Artisauak eskaera aurkezteak ez du Udala behartzen artisaua azokan onartzera. Udalak aukeraketa egingo du azokarako izena eman duten artisau guztien artean azokako postu guztiak betetzeko. Ondoren azokarako onartuak izan diren artisauek eta onartuak izan ez direnek Udalaren jakinarazpena jasoko dute, Bergarako Udalaren erabakiaren berri emateko. Bergarako Udalak, jasotako eskaera guztien artean azokan izango diren postuak aukeratu ondoren, beste bi artisau erreserban utziko ditu, azoka betetzeko aukeratutako artisauek artean azken orduko bajaren bat sortzen bada horri aurre egiteko.

### **3. Adjudikazio hartzailearen betebeharrak:**

- Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Zuberoa, Lapurdi edo Behe-Nafarroako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoia Errolda Orokorrean inskribatua egotea

- Eskaera egin duen artisauak, berak egindako edo ekoiztutako lehengaiak/produktuak saldu beharko ditu ezinbestean. Bergarako Udalak ez ditu azoka honetan produktuen salerosketan oinarritzen diren norbanakoak onartuko.
- Azokarako jarritako postua zabalik izatea deialdiaren xedeak (1.puntua) jasotako egunetan, eta bertan zehaztutako ordutegiarekin.
- Artisau bakoitzak bere mahaia, gehienez 3 metro x 1 metro neurrikoa, eta postua apaintzeko behar dituen osagarri guztiak ekarri beharko ditu. Bergarako Udalak espazioa bakarrik utziko du artisau bakoitzaren esku. Beraz, ez da stand-ik egongo. Artisau bakoitzak hesi metaliko bat izango du bere postuaren atzealdean, eta atzealde hori dekoratzea ere artisau bakoitzaren esku egongo da.
- Azoka ixteko ordua iristen denean artisau bakoitza arduratuko da postua desmuntatzeaz. Artisauak postua bertan lagatzea izango du, baina Udala ez da zaintzeaz arduratuko eta ez da inongo erantzule egingo gerta daitezkeenengatik (lapurreta, apurketa...)
- Ezingo zaio postua beste saltzaile bati zeditu edo laga. Artisauari etorri ezina suertatuko balitzaio Udalari horren berri eman eta Udalak berak erabakiko du postua nori laga.

#### **4. Udalaren betebeharrak:**

Udalaren betebeharrak dira ondorengoak:

- Munibe plazan artisau postuak barruan hartuko dituen karpa estalia jartzea abenduaren 18 goizerako.
- Karpak hartuko duen lurzoru osoan tarima jartzea abenduaren 18 goizerako.
- Artisau postu bakoitzarentzat argi-hartune bat edo entxufe bat jartzea abenduaren 18 goizerako.
- Karpa osoaren perimetroa hartuko duen hesi metalikoa jartzea karparen barrualdetik abenduaren 18 goizerako.
- Azokarako argiteria orokorra jartzea, eta horretarako beharrezkoa den koadro elektrikoa jartzea.
- Artisau azoka girotuko duen soinu ekipoa jartzea artisau feriak iraungo duen egunetarako.
- Azokaren publizitatea egitea eta horretarako beharrezko iruditzen zaizkion euskarri eta kartelak ateratzea.
- Udala ez da postuetan gerta daitekeen kalteen edo galeren erantzule egingo. Salbuespena izango da instalazioaren akatsen eraginez edo ondorioz eman direnean eta horrela frogatuko balitz.

#### **5.Adjudikaziorako prozedura**

Kontuan izanda postu kopurua baino eskaera gehiago egon ahal direla, azokan produktuen aukera handiena lortzeagatik, honako hauek dira adjudikaziorako erabiliko diren irizpideak:

- Postu kopurua baino produktu aukera gehiago balego baimenduko diren produktu moten zozketa egingo da.
- Eskaintzen den produktuko postu bat jarriko denez produktu berdina saltzen dutenen artean zozketak egingo dira.
- Lehentasuna izango dute Debagoienekoak diren artisauek.

#### **6. Bestelakoak:**

Baldintzen plegu honen interpretazioaren inguruan sor litezkeen gorabeherak Bergarako Udaleko kultura batzordeak erabakiko ditu, eta Alkateak berretsi.

Azoka honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean. Baldintzen plegu hauetan jasotzen ez den guztiaren inguruan Bergarako Udaleko kultura batzorde-buruak izango du erabaki ahalmena.

Agurne Barruso Lazkano andrea  
Bergarako Alkate-Udalburua

## 2009KO ARTISAUEN FERIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

### Eskatzailearen datuak / Datos del solicitante

<b>Izen-abizenak:</b> Nombre y apellidos		
<b>Bizilekua:</b> Domicilio		<b>HERRIA</b> Población:
<b>P.K / C.P:</b>	<b>NAN zk.a:</b> Nº DNI	<b>Telefono zenbakia eta e-maila:</b>

**-Artisauak lantzen duen produktuaren deskribapena:**

*Características principales del trabajo artesano:*

**-Artisauaren ibilbide artistikoari buruzko deskribapen laburra:**

*Breve descripción sobre la trayectoria del artesano*

**-Artisauak salgai jarriko duen produktuaren ekoizpen prozesuaren deskribapen laburra:**

*Breve descripción del proceso de elaboración del producto a vender:*

**- Azoka honetan tailerrik emateko prest zaude? Zein tailer mota, eta zein prezioengatik?**

*¿Estás dispuesto a ofrecer algún taller en esta feria? ¿Qué tipo de taller, y a qué precio?*

**-Azokara ekarriko diren zenbait artelan edo objeturen argazkiak. (Argazkiak erantsi).**

*Fotos de algunas de los productos y objetos a traer a la feria de artesanos. (Adjuntar fotografías).*

Bergaran, .....  
Sinadura / Firma

**OHARRA:** Eskatera horri honetako datu pertsonalak dagokionaren onespenerekin jasotzen dira eta Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxeroetan sartuko ditu. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15 / 1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.-San Martin Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.

**NOTA:** Los datos personales contenidos en la presente solicitud son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Bergara. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Bergarako Udala.- San Martin Agirre plaza, 1.-20.570 Bergara.